

# Caritasek egiaztatu du eskubide ugari urratzen direla nekazaritzan, ostalaritzan eta etxeko langileen sektorean

## Espanian egindako 900 elkarrizketatan baino gehiagotan oinarritutako ikerketa baten datuen arabera, ezegonkortasun handiko eta lan-esplotazioko egoera ugari daude

Caritasek Espainia osoko 30 probintzian egindako 917 elkarrizketatan oinarritutako ikerketa baten datuen arabera, lan-eskubide asko urratzen dira eta lan-esplotazioko egoera ugari daude nekazaritzako sasoikako lanetan, ostalaritzan eta etxeko langileen sektorean.

Txostena, iazko urriaren 25ean aurkeztu zen Madrilen eta izenburu hau du: “Lan-eskubideen urraketak nekazaritzan, ostalaritzan eta etxeko langileen sektorean” [[DESKARGATU](#)]. Caritasek bazuen egoera horren berri, pertsona horiekin lan egiten baitu egunero.

Ikerketa horretan aztertutako hiru sektoreetan egiaztatu da, lan-merkatu osoarekin alderatuz gero, ezegonkortasuna handiagoa dela, eskubideak gehiago urratzen direla eta esplotazioa normalizatu egin dela. Aintzat hartu behar da, gainera, hiru sektore horiek gure gizartearen muina direla, oinarritzko arloetan aritzen baitira: zaintzak, elikagaien ekoizpena eta aisialdiaren antolaketa.

**Hilde Daemsek**, Espainiako Caritaseko inklusio-taldeko adituak, eta **Paco Cristóbal**ek, komunikazio-arloko zuzendariak, aurkeztu zuten txostena. Bi aditu horiekin batera, aztertutako alorretan izaten diren praktika egokien eta desegokien bi zuzeneko lekukok ere beren esperientzien berri eman zuten: **Samira El Allali** emakume marokoarra denbora luze aritu da etxeko langile gisa, baita ostalaritzan ere; **Eugenio Zambrano** finantza-zuzendaria da Almonten (Huelva) fruitu gorriak ekoizten dituen Berries de los Mimbres izeneko nekazaritza-enpresa batean, eta, Ekonomia Sozialeko eredu batean oinarrituta, enpresa horrek irizpide etikoak erabiltzen ditu langileak kontratatzeko.

### Egiaztatutako urraketak

Ikerketan aztertu dira, batez ere, langileen eskubideen urraketan alderdi jakin batzuk, hala nola baldintza ekonomikoak, atsedeen-denbora eta lan-baldintzak, eta lege-urraketak.

Egiaztatutako egoera batzuen arabera, adibidez, elkarrizketatuen % 30ek lege dagokien soldata baino gutxiago kobratzen dute; % 25ek aparteko orduak egiten dituzte ordainsaririk gabe; eta sasoikako langileen % 50ek diru "beltzez" kobratzen dute soldata osoa edo zati bat.

Bereziki kezkarriak dira Zigor Kodearekin lotutako urraketak:

- 20 pertsonatik batek mehatxuak jaso ditu. Nekazaritza-sektorean, ehuneko % 13 da.
- Elkarrizketatuen % 4ri dokumentazioa atxiki zieten. Nekazaritza-sektorean, % 12ri.
- Elkarrizketatuen % 12k tratu iraingarria jasan dutela onartu dute; nekazaritzaren sektorean, berriz, % 22,5ek.

Hilde Adamsek adierazi Zuen bezala, "lan-eskubideen urraketa normalizatu egin da hiru sektore horietan. Sektore horietako langileak babesik gabe daude eta ez dira 'legitimatuta' sentitzen zuzenbidezko estatuan sartzeko". Izan ere, elkarrizketatutako pertsonak onartzen dute "hiru sektore horietako batean lan eginez gero, ez dizkietela aparteko orduak ordainduko, legalki dagokien soldata baino soldata txikiagoa izango dutela eta soldataren parte bat 'beltzean' jasoko dutela".

Lau elkarrizketatuetatik batek adierazi du lan-mota horietan legeak urratzen direla, eta jakin badakitela. Pertsona horien % 5ek soilik salatu dituzte egoera horiek; % 70ek, berriz, ez dituzte salatzen, lana galtzearen beldur direlako edo salaketak ezertarako balio ez duela uste dutelako.

Defizit horiek gorabehera, ostalaritzako eta etxeko lanetako langileen % 35ek esan dute oso pozik daudela beren lan-ibilbidearekin (9tik 10era), eta % 70ek nahiko edo oso pozik daudela (6tik 10era). Nekazaritza-sektorean, hala ere, zifra horiek % 12 eta % 45 dira, hurrenez hurren.

Langileen egoera administratibo irregularra arrisku-faktore erantsia da, lan-eskubideen urraketa jasateari dagokionez. Hala ere, txostenaren arabera, aztertutako sektoreetan lan egiten duten pertsonen lan-eskubideak urratzen dizkiete, haien egoera administratiboa edozein izanik ere.

### **Pertsonen esplotazioa eta eskubideen galera**

Beste egoera larri bat da, hain zuzen ere, delitu penalak izan daitezkeen lan-urraketak eta beste ekintza batzuk ez direla identifikatzen eta, beraz, ezin direla

salatu. Alde horretatik, Caritaseko adituak ohartarazi zuen “nekazaritza-sektorean egiaztatutako izaera penaleko urraketa larrien % 22 kasuen atzean, lan-esplotazioko edo bortxazko laneko egoerak egon daitezkeela”. Gainera, “pertsona horiek giza eskubideen urraketa larri bati lotutako delitu baten biktimatzat identifikatzen ez direnez, ezin diegu babesik eta laguntzarik eman, eta ezin ditugu delitu horiek salatu eta konpentsatu”.

Lan-eskubideen urraketak pertsona horien bizitzako alderdi guztiei eragiten die: ez dute denbora librerik, ez dute inolako ahalmenik lana eta familia bateragarri egiteko, behin-behinekotasun eta soldata-irregularitasun handiak dituzte, ezegonkortasunera eta prekaritatera halabeharrez bideratuta daude, eta, ekonomia irregularrean aritzen direnez, hainbat muga dituzte eskubideak eta prestazioak eskuratzeko.

Eskubide-galera horrek babesgabetasuna eragiten duenez, pertsonak, askotan, ez dira jabetzen esplotazio horretaz, eta normalizatu ere egiten dute, lan hobea lortzeko “beharrezko urratsa” dela, edo “herrialde honetan bizitzeko eta lan egiteko ordaindu beharreko prezioa dela” sinetsita.

Caritasen iritziz, hiru sektore horietan izaten diren eskubide-urraketen “normalizazio” horrek Estatuaren porrota adierazten du, langileen babesa ziurtatzeari eta haien eskubideak bermatzeari dagokienez.

### **Egoera horiek deuseztatzeko proposamenak**

Ikerketaren datuekin batera, zenbait proposamen aurkeztu dira, hautemandako egoerei heltzeko.

**Legegintzaren esparruan**, Caritasen iritziz oso garrantzitsua da:

- 1) Espainiak “Etxeko langileen 2011ko Hitzarmena” berrestea; izan ere, hitzarmen horretan herrialdeei eskatzen zaie araudiak molda ditzatela, sektore horretako lan-eskubide eta gizarte-prestazio guztiak bermatze aldera.
- 2) Luzatu gabe, behar diren lege-aldaketak egitea, etxeko langileak Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sar daitezen, eta, beraz, gainerako langileei aitortzen zaizkien prestazio guztiak izateko eskubidea izan dezaten. Bai eta etxeko langileek eta gainerako langileek lege-eskubide berberak izatea ere.

**Nekazaritza-sektoreari** dagokionez, honako hau proposatzen da:

- Bortxazko lanari buruzko Hitzarmenari dagokion P029 Protokolo Lotesleak ezartzen dituen neurriak abian jartzea. Espainian, irailaren 20an jarri zen indarrean. Gure herrialdean, bortxazko lana ez dago delitu autonomo gisa tipifikatuta, ezta esklabotasuna eta morrontza ere, 1930eko Bortxazko Lanaren aurkako Hitzarmenaren definizioaren arabera. Horretarako, Zigor Kodea aldatu beharko litzateke, bortxazko lana, esklabotasuna eta morrontza modu autonomoan tipifikatzeko, eta haien eta lan-esplotazioa bereizteko.

- Sektorea arautzen duten probintzia-hitzarmenen arteko desberdintasunak berrikustea, ez baitira batere lagungarriak sasoikako langileek zer eskubide dituzten jakiteko. Eragile guztiek funtsezko gogoeta bat egin behar dute, desberdintasun hori berrikusteko, minimo bidezkoagoak ezartzeko eta gutxienez legez ezarritakoa betetzen dela ziurtatzeko. Laneko ikuskatzailetzaren eginkizuna funtsezkoa da.

Horrez gain, eta **hiru sektoreei dagokienez**, gaur egungo Atzerritarrei buruzko Legearen arabera, egoera administratibo irregularran dauden atzerritarrak ezin dira lan-merkatuan sartu, eta horrek “ezkutuko enplegua” –kontraturik gabe– izatera bultzatzen ditu, eta, beraz, era guztietako gehiegikeriak eta urraketak jasatera.

Bestalde, lan-baimenak berrizteko zailtasunen ondorioz, atzerritar asko ondoren gertatutako irregulartasun-egoeran geratzen dira, eta berriro erortzen dira ezkutuko ekonomian eta zerotik hasi behar izaten dute erregulartasunera itzultzeko, horrek langileari eta enpresaburuari dakarzkien ondorio guztiekin.

Gainera, atzerritarrei buruzko legediak zehapen-araubide oso zorrotza ezartzen duenez, lurralde-mugikortasuna eta mugikortasun funtzionala asko zailtzen dira. Horrez gain, ezkutuko merkatuan lan egitea arau-hauste larritzat hartzen da langilearen kasuan, eta oso larria enplegatzailearen kasuan. Hori guztia dela eta, atzerritarren lana gero eta ezkutuago bihurtzen da, eta haien egoera gero eta kalteberagoa.

Caritasen iritziz, beraz, ondoren gertatutako irregulartasuna gainditu behar da, bizileku- eta lan-baimenak berrizteko sistema malgutuz, eta baimen horiek eta lurraldea edo pertsonak egiten duen jarduera bereiziz. Neurri horrek asko lagunduko luke ezkutuko enpleguaren poltsa murrizten, eta enplegatzaileek errazago egingo lituzkete arauzko kontratuak; gainera, langileek aukera izango lukete enplegu-prestakuntza eta -bilaketa egiteko, kalteberatasunean eta bazterketan erori gabe.

Azkenik, oso positiboa izango litzateke berriz planteatzea gure lurraldean jada bizi diren pertsonak, baina egoera irregularran, bizileku-baimenak eskuratzeko egin behar duten prozesua; izan ere, denbora luzez jo behar dute ekonomia informalerara, bizirik irauteko.

Gainera, premiazkoa da esplotazio-mota guztien aurkako lege integral bat sustatzea, biktimen babesa, susperraldia eta lehengoratzea lortzeko mekanismo egokiak ezarriko dituen.

## **Lan Duinaren aldeko konpromisoa**

Paco Cristobalek hauxe adierazi zuen bere aurkezpenean: “Caritasen oso serio hartzen dugu lan-eskubideen urraketa, eta hura deuseztatzearen eta prebenitzearen alde lan egingo dugula agintzen dugu. Horretarako, denontzako Lan Duin bat defendatzen ari gara duela hainbat urtetik hona, Elizaren beste erakunde batzuekin batera sustatzen ari garen ekimenaren barruan”.

Eta, bestalde, erantsi zuen, “gidatzen gaituen eredia Ekonomia Solidarioa eta soziala da, giza eskubideen zerbitzura dagoena eta planeta zaintzeari lehentasuna ematen diona. Ikusgai dagoen errealitatea da hori, Estatu osoan zehar hedatutako proiektuetan oinarrituta dagoena, pertsonak ekonomia-jardueraren ardatz hartzen dituen eta lan duina eskuratzea errazten duena”.